



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko urtarrilaren 9a

3. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak bultza eta har ditzan, jabeen erkidegoek azken kontsumitzaileen katalogazioa edukitzeko. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak onetsia (4. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Parlamentuko langileen lan egutegia 2014rako (5. or.).

—Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala 2014rako (6. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

—Lehendakaritzaren Ebazpena, Foru lege arrunten proiektu edo proposamenen gainean batzordeek ematen dituzten irizpen negatiboak buruzko 2008ko maiatzaren 12ko Ebazpena aldatzen duena (7. or.).

—Lehendakaritzaren ebazpena. Horren bidez arautzen da Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa sortzeari buruzko Foru Legeko 12.1 artikulua aipatzen dituen sozietate-eragiketak baimentzeko jarraitu beharreko prozedura (8. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.

EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 139 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsitako irizpena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari buruzkoa. Proiektu hori 2013ko azaroaren 8ko 128. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

IRIZPENA

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak 2013ko abenduaren 20an eta 2014ko urtarrilaren 8an egindako bileretan onetsia.

Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Foru lege proiektu honen xedea da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzea.

Baliabiderik ez duten hipoteka-zordunak babesteko presako neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-dekretuak zenbait neurri fiskal ezarri zituen, etxebizitza erosteko hipoteka mailegu edo kredituek eragindako betebeharrak bete ezinik, familia askotan gertatutako egoera ekonomiko larria samurtzeko. Neurri fiskal horiek egokitu ziren Foru Komunitateko zerga arloko araudira Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko tributu-neurriei buruzko maiatzaren 4ko

8/2012 eta Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 174. artikulua aldatzeko maiatzaren 4ko 9/2012 foru legeen bidez.

Berehala ikusi zen, ordea, aipatu neurri fiskal horiek ez zirela oso eraginkorrak, gehienbat haien aplikazio esparrua, aipatutako errege lege-dekretuarena alegia, txikiegia zelako, bi aldetatik ikusirik. Batetik, zordunak kontuan hartzen zituen familia unitateko kide guztiek errentarik ez zutenean soilik. Bestetik, ez zen ohiko etxebizitzaren hipoteka-betearazpen guztietan aplikatzen, baizik eta soilik etxebizitza hori ordainean ematen zen kasuetarako.

Errege lege-dekretu horren ondotik aldaketa garrantzitsuak gertatu dira arauetan. Batetik, azaroaren 15eko 27/2012 Errege Lege-dekretuak bi urteko etena ezarri zuen larritasun bereziko kasuetan dauden zordun batzuentzat, epe horretan ohiko etxebizitzatik ez botatzeko ohiko etxebizitzaren hipoteka betearazteko epaiketa bidezko edo epaiketaz kanpoko prozesuetan. Bestetik, maiatzaren 14ko 1/2013 Legeak nabarmen handitu zuen 6/2012 Errege Lege-dekretuaren aplikazio esparrua, eta halatan, familia unitatearen diru-sarreretarako muga Eragin Anitzeko Errenten Adierazle Publikoaren hirukoitza da orain (edo laukoitza, familia unitateko kideren batek desgaitasuna duenean).

Aurrekoa ukatu gabe, 6/2019 Errege Lege-dekretuaren aplikazio esparrua nabarmen zabaldu bada ere, oraindik behar bestekoa ez dela irizita, hipoteka-zordunen babesa areagotzea da foru lege proiektu honen asmoa. Hala, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergari dagokionez, zerga horren kargaren zenbatekoa jasanarazteko debekuaren norainokoa, 2/1995 Foru Legearen 174.2 artikuluan ezarritakoa, handitu egiten da: zergadunaren ordezkio gisa ezin izanen dute zenbatekoa jasanarazi ondasun higiezia eskuratzen duten finantza-entitateek, ohiko etxebizitzaren eskualda-

keta entitate horietako batek eskatutako epaiketa bidezko prozedura batean egindakoa bada eta etxebizitza hori denean subjektu pasiboaren titulartasuneko etxebizitza bakarra. Hipoteken Legearen 129. artikuluan aurreikusten den kasuan ere, hau da, ohiko etxebizitzaren notario bidezko salmenta estrajudiziala egiten denean, eskuratzailerak ezin izanen du kargaren zenbatekoa jasanarazi.

Horri jarraituz, kasu horietan etxebizitzaren eskualdatzailea den hipoteka-zordunak ez du bere gain hartuko hiru-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren karga. Zerga horren ondorioetarako babestutako hipoteka-zordunen multzoa zein den zedarrizteko, aurrerantzean ez dira kontuan hartuko familia unitatearen diru-sarrerak, eta ez da beharrezkoa izanen etxebizitza ordainean ematea. Aski izanen da hipoteka-zordun baten ohiko etxebizitzaren eskualdaketa finantza-entitate batek abiatutako prozedura judizial batean gertatzea, betiere etxebizitza hori subjektu pasiboak bere titulartasunean duen bakarra bada, edo ohiko etxebizitzaren notario bidezko salmenta estrajudiziala gertatzea, Hipoteka Legearen 129. artikuluan aurreikusitako kasua alegia.

174.2 artikulua. 2012ko martxoaren 11tik aurrera izanen ditu ondorioak, hau da, honen bidez aldatzen den aginduak ondorioak izan zituen egunetik aurrera.

Beste alde batetik, Ekintzaileei laguntzeko eta hazkundera eta enplegu-sorkuntza bizkortzeko neurriei buruzko uztailaren 26ko 11/2013 Legearen 34. artikuluan ezarritakoaren ondorioz, ADIF enpresa-entitate publikoari egindako trenbide-azpiegituren eta geltokien eskualdaketak toki entitateei dagozkien zerga orotatik salbuetsirik egonen dira. Kasu horietan ez da aplikatzekoa izanen Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 57.2 artikuluan aurreikusitakoa, eta, beraz, salbuespen horrek ez du ordainik ekarriko.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 20.2 artikuluan, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateginaren 152. eta 153. artikuluetan ezarritakoarekin bat, foru lege proiektu hau onesteko gehiengo osoa behar da.

Artikulu bakarra. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen honako agindu hauek testu hau izanen dute aurrerantzean:

Bat. 174.2. artikulua. 2012ko martxoaren 11tik aurrera gertatzen diren zergapeko egintzetarako ondorioekin.

“2. Hipoteka-zordunen ohiko etxebizitzaren eskualdaketatik, finantza-entitate batek abiatutako prozedura judizial batean egindakoak badira eta etxebizitza hori subjektu pasiboak bere titulartasunean duen bakarra bada, ondasun higiezina eskuratzen duen finantza-entitateak, zergadunaren ordezkotza gisa, ezin izanen dio kargaren zenbatekoa jasanarazi zergadunari.

Aurreko lerrokadan ezarritakoa halaber aplikatuko zaio eskuratzailerari ohiko etxebizitza notario bidez estrajudizialki saltzen denean, Hipoteka Legeko 129. artikuluan aurreikusten den moduan, bai eta ordainean ematen denean aipaturiko etxebizitza, hipoteka-zordunak finantza-entitate batekin iritsitako akordio baten ondorioz eta hipoteka-exekuzioaren ordezkotza neurri gisa, eta, betiere, etxebizitza hori subjektu pasiboak bere titulartasunean duen bakarra bada”.

Bi. Hamabigarren xedapen gehigarria gehitzea.

“Hamabigarren xedapen gehigarria. Estatuko trenbide-sarea administratzeko ardura duen ADIF enpresa-entitate publikoari eskualdatzea sare horren titulartasuna.

Ekintzaileei laguntzeko eta hazkundera eta enplegu-sorkuntza bizkortzeko neurriei buruzko uztailaren 26ko 11/2013 Legearen 34. artikuluan ezarritakoaren ondorioz, ADIF enpresa-entitate publikoari egindako trenbide-azpiegituren eta geltokien eskualdaketak toki entitateek ordainarazi beharreko tributu orotatik salbuetsirik egonen dira, eta ez da aplikatzekoa izanen foru lege honen 57.2 artikuluan aurreikusitakoa”.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, artikulu bakarreko Bat atalean aurreikusitako ondorioak ukatu gabe.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak bultzatzea eta har ditzan, jabeen erkidegoek azken kontsumitzaileen katalogazioa edukitzeko.

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak, 2014ko urtarrilaren 3an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak bultzatzea eta har ditzan, jabeen erkidegoek azken kontsumitzaileen katalogazioa edukitzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du egoki diren neurriak bultzatzea eta har ditzan, jabeen erkidegoek azken kontsumitzaileen katalogazioa edukitzeko, zertarako eta ez dakizkien tasa judizialak aplika ez-ordaintzeak berreskuratzeko prozesuetan.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du egoki diren aldaketak bultzatzea eta egin ditzan Jabetza Horizontalari buruzko Legean, azken bost urteetako berankorrek kuotak ez ordaintzeagatik erantzuteko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du plan bat taxutu dezan, Espainiako Gobernuak egin beharreko lege-aldaketak egiten ez dituen bitartean eta Nafarroako jabeen erkidegoak jasaten ari diren lege-babesgabetasun egoera konpontzearen, finantza-entitatearen baten zorrak direla-eta Jabetza Horizontalari buruzko Legeak ezartzen dituen betebeharrak betetzerik ez duten erkidegoetan sortzen diren egoerei aurre egiteko. Planean jasoko dira erkidegoei aholkularitza juridikoa emateko jarduketak, bai eta erkidegoari dagozkion lege-ekintzak egiteagatik kalteak edo zergak ekiditeko neurriak ere.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako jabeen erkidegoekin zorrak dituzten finantza-entitateak premiatzen ditu lehenbailehen bete ditzaten beren ordaintze-betebeharrak, erkidego horiek beren gastu arruntei aurre egin ahal izan diezaieten eta erkidegoan beharrezkoak diren zaharberritze edo hobekuntza proiektuei ekin ahal izan diezaieten".

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko langileen lan egutegia 2014rako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Zerbitzu Orokorretako buruak aurkeztutako proposamena eta, halaber, Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak horri buruz emandako adostasuna, hona ERABAKIA:

1. Onestea Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2014ko egutegia. Hauexek izanen dira asteburutik kanpoko jaiegunak eta egun bereziak:

- Uztailaren 8a, 9a, 10a, 11 eta 14a: Sanferminetako jaiegunak.
- Maiatzaren 2a, uztailaren 25a, abenduaren 26a eta abenduaren 31: jaiegunak.

Gainerako jaiegunak izanen dira Foru Komunitateko administraziorako oro har ezarritakoak.

2. Ohiko lanaldia egun indarra duen berbera izanen da, astelehenetik ostiralera.

Urtarrilaren 2an eta 3an, lanaldia 08:00etatik 15:00etara bitartekoa izanen da. Sartzeko, 07:30etik eta 08:30era bitarteko malgutasuna egonen da; ateratzeko, berriz, 14:30etik eta 15:30era bitarteko malgutasuna. Betiere, egunean 7 ordu benetako bete beharko dira lanean.

Uztailean, abuztuan eta irailaren lehendabiziko hamabostaldian lanaldia 08:00etatik 14:30era bitartekoa izanen da. Sartzeko, 07:30etik eta 08:30era bitarteko malgutasuna egonen da; ateratzeko, berriz, 14:00etatik eta 15:00etara bitarteko malgutasuna. Betiere, egunean 6 ordu eta erdi bete beharko dira lanean.

Abenduaren 24an lanaldia 5 ordukoa izanen da, 8:00etatik 13:00etara.

3. Gainerako egunetarako lan txanda hauek izanen dira langile guztiek bete beharrekoak, talde bakoitzaren berezitasunak kontuan harturik:

- a) Goizeko txanda.
- b) Goiz eta arratsaldeko txanda.

4. Urteko 1.560 lanorduen kopurua lortze aldera, bi orduko poltsa bat sortzen da. Bi ordu horiek 2014. urtean zehar disfrutatzen ahalko dira, dago-kion zerbitzuburuak aurrez baimena emanda.

5. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala 2014rako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 107. eta 109. artikuluek ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Ezartzea hauxe izanen dela Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala 2014. urterako:

Urtarrilaren 1etik 6ra bitartean eta uztailean, abuztuan eta irailaren lehendabiziko hamabostaldian:

– Astelehenetik ostiralera:
09:00etatik 14:00etara.

– Uztailaren 8an, 9an, 10ean, 11n, 14an eta 25ean itxita egonen da, eta baliogabeak izanen dira ondorio guztietarako.

Urtarrilaren 7tik ekainera bitarteko hilabetee-tan, irailaren bigarren hamabostaldian eta urritik abendura:

– Astelehenetik ostegunera:
09:00etatik 14:30era.
17:00etatik 19:00etara.

– Ostiralean: 09:00etatik 14:30era.

– Abenduaren 24an zabalik egonen da 9:00etatik 12:30era.

– Maiatzaren 2an, eta abenduaren 26a eta 31n itxita egonen da, eta baliogabeak izanen dira ondorio guztietarako.

2. Baliogabeak izanen dira, halaber, larunbat, igandeak eta Nafarroako Foru Komunitaterako eta Iruñerako ezarritako jaiegunak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Lehendakaritzaren Ebazpena, Foru lege arrunten proiektu edo proposamenen gainean batzordeek ematen dituzten irizpen negatiboei buruzko 2008ko maiatzaren 12ko Ebazpena aldatzen duena.

Foru lege arrunten proiektu edo proposamenen gainean batzordeek ematen dituzten irizpen negatiboei buruzko Lehendakaritzaren 2008ko maiatzaren 12ko Ebazpenaren arabera, baztertutzat joko da kasuko legegintza-ekimena, eta hala adieraziko da espresuki, baldin eta batzorde eskuduna arau-testu jakin bat onestearen aurka azaltzen bada. Halakoetan, batzordeko mahaiak foru lege proposamena edo proiektua ez dela onetsi jakinaraziko dio Parlamentuko Mahaiari, eta Mahaiak, horren berri izan ondoren, kasuko erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko du.

Ebazpen hau legegintza-prozedura arruntei buruzkoa da soilik, zeren eta, zioen azalpenean justifikatzen den bezala, prozesu horiek direla-eta Legebiltzarreko Erregelamenduan ez baita jasotzen irizpeneko testuari buruzko zuzenketei edo boto partikularrei eusteko aukerarik.

Alabaina, arrazoi hori bera tarteko, antzeko konponbide bat eman behar zaio gehiengo osoa behar duten foru lege proposamenen eta proiektuen izapidetzeari, batzordean testu osoa berariaz baztertu ondoren, zuzenketei edo boto partikularrei ere eusten ez zaienean. Halakoetan, halaber, legegintza-prozedura amaitu beharko da, eta ez da proposamenik igorri beharko Osoko Bilkurara.

Azkenik, aldaketa honetaz baliatzen da legegintza prozedurari buruzko erreferentzia egokitzeke, lehenago Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 139. artikuluan baitzegoen jaso-ta eta orain, ordea, 140. artikuluan.

Horretarako, Eledunen Batzarrak aldez aurretik erabaki loteslea hartuta eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 40.2 artikuluan ezarritako-arekin bat, EBATZI DUT:

Lehena. Foru lege arrunten proiektu edo proposamenetan batzordeek egiten dituzten irizpen negatiboei buruzko Lehendakaritzaren ebazpene-

ko lehenengo idatz-zatia aldatzea. Honako testua izanen du:

"Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 140. artikuluan aipatutako foru lege arrunten proposamen edo proiektuen kasuan, baztertutzat joko da kasuko legegintza-ekimena, eta hala adieraziko da espresuki, baldin eta batzorde eskuduna arau-testu jakin bat onestearen aurka azaltzen bada.

Halakoetan, batzordeko mahaiak foru lege proposamena edo proiektua ez dela onetsi jakinaraziko dio Parlamentuko Mahaiari, eta Mahaiak, horren berri izan ondoren, kasuko erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko du.

Aurreko lerrokadetan azaldutako izapidetze bera izanen dute gehiengo osoa eskatzen duten foru lege proposamenek edo proiektuek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 139. artikuluan aipatutakoek, batzordeak arau-testua baztertzen duenean eta, gainera, horretarako emandako epean inongo zuzenketari edo boto partikularri eutsi ez zaienean.

Bigarrena. Ebazpenaren izenburua aldatzea. Honako izenburua izanen du: "Lehendakariaren ebazpena, foru legeen proiektu edo proposamenetan batzordeek egiten dituzten irizpen negatiboei buruzkoa".

Hirugarrena. Aldaketa honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean hartuko du indarra, eta, azaldu bezala, batzordean eztabaidatu ondoren onetsi gabe gelditu diren gehiengo osoko foru lege proposamen eta proiektu guztiei aplikatuko zaie, baldin eta inongo zuzenketari edo boto partikularri eutsi ez bazaio.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Lehendakaritzaren ebazpena. Horren bidez arautzen da Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa sortzeari buruzko Foru Legeko 12.1 artikulua aipatzen dituen sozietate-eragiketak baimentzeko jarraitu beharreko prozedura.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. sozietatea (NEKP) sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legeko 12. artikulua xedatzen du Nafarroako Parlamentuak aurrez baimena eman beharko duela honako sozietate-eragiketarako egiteko:

"a) Sozietate publikoetako partaidetzak eskualdatzea edo besterentzea Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa edo Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa osatzen dutenez beste pertsona batzuei.

b) Fusioak, zatitzeak, eraldatzeak, desegiteak, likidazioak eta beste edozein berregituratze-eragiketa, sozietate publikoaren izaera galtzea dakarrena.

c) Enplegu-erregulazioko espedienteak eta plantillak berregituratzeko planak, sozietate publiko baten langileen ehuneko hamarri baino gehiagori eragiten dietenak".

Parlamentuak sozietate-eragiketa horietarako aurrez baimena ematea prozedura-izapide berri bat da, ezarrita datorrena abuztuaren 7ko 28/2013 Foru Legean, NEKP sortzeari buruzko foru lege jadanik aipatua partzialki aldatzen duen horretan. Hori horrela, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak ez du araubide orokorrik jasotzen Parlamentuak honek ematekoak diren baimenak izapidetzeari buruz, nahiz eta bai jasotzen duen baimen zehatz batzuen kasuan jarraitu beharreko prozedura, hala nola estatuarekiko edo autonomia erkidegoekiko hitzarmenak sinatze dagozkion baimenena. Horrenbestez, beharrezkoa da egoki diren arau osagarriak ezartzea, Parlamentuko Erregelamenduan dagoen hutsune juridikoa betetze aldera, NEKP sortzeari buruzko Foru Legeko 12.1 artikulua aipatzen dituen sozietate-eragiketarako baimena ematean jarraitu beharreko prozedurari dagokionez. Parlamentuko Erregelamenduko 40.2 artikuluan xedatuaren arabera, Nafarroako Parlamentuko lehendakariari dagokio horrelako ebazpen osagarriak ematea, Eledunen Batzarrak aurrez baimentzeko erabaki loteslea hartu ondoren.

Taxutu beharreko izapidetze-jardun zehatzari dagokionez, egoki dirudi osotasunaren gaineko eztabaidaren prozeduraren aldeko aukera egitea –beste baimen-kasu batzuetan gertatzen den bezala–, zeinetan, Foru Komunitateko arduradun

exekutiboak kasuko proposamena azaldu ondoren, parlamentu-talde ezberdinetako eledunek esku hartu ahalko baitute dena delako sozietate-eragiketaren aldeko nahiz aurkako txandan. Eztabaida egin ondoren, proposamenari buruzko bozketari ekinen litzaioke. Proposamena onetsita geratuko litzateke gehiengo soilaren sostengua baldin balu; bestela, bazter utziko litzateke.

Zuzen irizten zaio edo Nafarroako Gobernuko lehendakariak, sozietateko burua baita, edo NEKP atxikita dagoen gobernu departamentuko titularrak NEKPeren proposamena parlamentu-batzordean defendatzeari. Orobat komenigarri irizten zaio horrelako baimenak emateko organo eskuduna parlamentu-batzorde bat izateari, ahalik eta azkarrena izan dadin prozedura. Osoko Bilkuraren osaera proportzionaltasun zorrotzagoz islatzeko, litekeena baita Nafarroako Gobernuko lehendakariak esku hartzea, egokitzen jotzen da Foru Araubideko Batzordeari ematea gaia aztertze eskumena. Bestalde, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa sortzeari buruzko Foru Legeko 1.5 artikuluan aurrekusi bezala, sozietate hori ondarearen arloko departamentu eskudunari dago atxikia; hori dela eta, haren titularrari egokituko zaio sozietate-proposamena defendatzea, baldin eta Nafarroako Gobernuko lehendakariak defendatzen ez badu.

Hori horrela, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 40.2 artikuluan xedatuari jarraituz, Lehendakaritza honek, Eledunen Batzarrak erabaki loteslea hartu ondoren, honako arau hauek onesten ditu:

Lehena. NEKP sortzeari buruzko Foru Legeko 12. artikulua aipatzen dituen sozietate-eragiketarako baimentzeko eskaera Parlamentuan jaso ondoren, Mahaiak aginduko du Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila entitateko Administrazio Kontseiluak horretarako harturiko erabakia.

Bigarrena. Ekimena Foru Araubideko Batzordean izapidetuko da, Mahaiak aurreko arauan aipatzen den argitaratze ofizialetik aurrera ezartzen duen epea igaro ondoren.

Hirugarrena. Kasuko baimena emateari buruzko eztabaida egin beharko da osotasunaren gaineko eztabaidetarako ezarritako arauak betez. NEKPen sozietate-eragiketarako proposamena aurkeztea Nafarroako Gobernuko Lehendakariari

dagokio, edo, kasua bada, sozietatea zer departamenturi atxikita dagoen, departamentu horren buru den kontseilariari; horretarako, gehienez ere hamabost minutu izanen ditu.

Jarraian, parlamentu-talde ezberdinetako ele-dunek proposamenaren alde edo aurka esku hartu ahalko dute, gehienez ere hamar minutuz.

Laugarrena. Eztabaida bukatu ondoren, proposamena bozkatuko da. Proposamena onesteko, beharrezkoa izanen da aldeko botoen gehiengo soila.

Bosgarrena. Batzordearen erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta NEKPen Administrazio Kontseiluari helaraziko zaio, Nafarroako Gobernuko Lehendakari-tzaren bitartez.

Seigarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, 2013ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

